

GONBIDAPENA

EUSKARAREN TRANSMISIOARI BURUZKO IV. MINTEGIA

Agur t' erdi:

Euskararen erabileraz arduratzen garenok ezin dugu erabilerarako ezinbestekoa den transmisioaren gakoa alde batera utzi, transmisioak gaitasuna ez ezik hizkuntzarekiko baloreak eta ardura ere dakartzalako.

Dakiguna gure ondorengoei ematen diegunean hizkuntza horrekiko begirunea erakusten diegu, balekoa dela esaten ari gara eta eura ere badela adierazten diegu.

Transmisioa hain garrantzitsua izanik, ezinbestekoa da alor hau aintzat hartzea, modu estrategikoan lantzea eta plangintzak definitzea. Asko gara transmisioaren gainean lanean dihardugun euskara elkarte, erakunde, aisialdi talde, irakasle edota guraso elkarteak. Beste alorretan gertatzen den moduan, erakunde bakoitzak bere kabuz somatu dituen premiak asetu nahian hasi gara.

Gaiari sendotasunez heldu eta, mintegi baten bitartez, honen inguruan dauden esperientzia eta praktika onak elkarbanatu eta ezagutarazteaz gainera, transmisioari buruz eztabaida eta lan ildoak definitzeko asmoarekin lehenengo mintegia antolatu genuen iazko udaberrian. Gaiarekiko interesa eta jasotako ondorioak ikusita, aurten ere lan ildo horri jarraipena ematea erabaki dugu. Horretarako, Eibarko ..eta kitto! Euskara Elkartea egun osoko mintegia egingo du aurten ere, besteak beste transmisioan parte hartzen duten hainbat eragileren zein adituren parte-hartzearekin. Eguerdian etena izango dugu denok elkarrekin bazkaltzeko.

Gutun honen bitartez mintegi horretan parte har dezazun gonbitea egitera gatozkizu, mintegiaren gaia zure jakinmineko gerta litekeelakoan. Mintegia **maiatzaren 6an** egingo dugu, Eibarko Portalea kultur etxean, goizeko 09.00etan hasita. **Izen ematea martxoaren 31tik apirilaren 30era egin ahal izango da normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzita edo 943 20 09 18 telefonora deituta.** Bertan izen-abizenak, enpresa edo erakundea, telefonoa eta e-posta adierazi beharko dira. Mintegiaren prezioa 25 eurokoa izango da (bazkaria barne), goizez edo arratsaldez etortzeko asmoa izanez gero, 15 euro. Ordainketa Euskadiko Kutzako ES21 3035 0078 86 0780022083 zenbakian egin beharko da eta ...eta kitto!ra bidali.

Beste barik, eskerrik asko zure arretagatik.

Ainara Labado Alonso

*..eta kitto! Euskara Elkarteko normalizazio teknikaria
(943200918 - normalizazioa@etakitto.com)*

